

Aspaldiko jakintsu hark esan zidan aldi berri bat hasi baino lehen aldi zaharra uzteko prest egon behar nuela. Beste era batera esanda, "hiltzeko" prest egon behar nuela berriro "jaiotzeko".

Eta, hala ere, onartu beharra daukat, kosta egiten zait doanari uztea, kosta egiten zait gauzen amaiera onartzea, kosta egiten zait pertsoneri, aldarteeri, usainei eta begiradei agur egitea.

Behar bada horrexegatik jarraitzen dut idazten, badoanari urezko seilu propioa atxiki nahian edo...

Eta, elurra bostehun metro ingurura jaitsi dela jakitun, aurki zimeltzen hasiko den mimosa ederrari begiratzeko astia hartzen dut, eguzki koloreko pinportak lagun, begi niniari betiereko itzuleraren berri eskaini asmoz.

Eta aldi trumoitsuei kontrapuntu egin nahirik edo, egunik ilunetan pizturiko asmoez osatzen dut neure neurriko egutegia. Izan ere, zer errealagoa, altzarazten nauen ilusio izpia baino?

Sinestea sortzea bada, sinestu egin nahi dut.

Sortzea sinestea bada, sortu egin nahi dut.

Eta, bitartean, bizi, gaur, hemen, une errepika ezin honetan, sortzaile gazte hauen kimuak lagun hartuta, bizitza ospatuz, hitzak, eta arnas berritua bitarteko direlarik.

Zorionak denoi; saria jaso duzuenoi, aipamena eskuratu duzuenoi, trofeo barik ere, berba berriekin borrokan jarraitzen duzuenoi, poesia izenari handiegi iritzita, molde ezezagunez antolaturiko berba-antolaketa irudimentsua hurrengoan erakusteko utzi duzuenoi..., zorionak denoi eta nire eskerrik beroenak kimu berrien zaintza-lanetan zabiltzatenoi ere, izan guraso, izan irakasle, izan erakunde, izan babesle...

Zorionak denoi.

Gertu dago udaberria.

“R.M. Azkue-2012” sarian A Mailako lanak aztertzeko epaimahaia osatu dugu Yolanda Arrietak, Igone Etxebarriak eta Antton Irustak. Hiruron artean lanak aztertu eta iritziak eztabaidatuta, sariak honetara banatzea erabaki dugu.

NARRAZIOA

Narrazioari dagokionez, ohiko hiru sariez gain, beste lau aukeratu ditugu argitaratzeko.

1. saria: **56- GAUZA TXIKIAK.** Anaiaren galerak gazte batengan sortarazitako sentimendua ardatz hartuta, amaierara arte intriga eta suspensea mantentzen duen narrazio bizi eta indartsua. Luma azkarrez eta era originalez garaturiko kontakizun emozional ondo egituratua.

2. saria: **20-ALTXA PORRU!** Narratzailearen ahots ironiko, olgetari eta trufaria. Protagonista gazteak ligatzeko orduan sentitzen duenaren eta adierazten duenaren arteko talka umoretsua, tonua galdu barik ondo harilkatua, hasieratik amaiera arte.

3. saria: **62- BIZI BERRI BATEN BILA.** Tratu txarren gaia, gai gordina izanik, zentzuz eta sentiberatasunez eroana. Akzio eta gertaeren arteko lotura ondo josia eta ondo itxitako trama. Pertsonaia eta egoera sinesgarriak.

Aipamenak (argitaratzeko), orden barik:

26- MAIALENEN EGUNEROKOA. Harreman aldaketa batek eragindako egoera emozionalaren garapena, ondo mailakatua eta ondo eroana, eguneroko baten bidez.

07- ABESTIA. Alzheimerra, zahartzaroa... Ilobaren ikuspegitik kontaturiko narrazioa, emozioei adi eta amaiera politarekin biribildua.

34- ERRESPETUA. Narratzailearen ikuspegia nabarmentzen da. Tonu grazioso, erreboltaria. Erregistro aldarrikatzailea.

45- PIERRE HEME. Nerabe baten ikuspegitik kontaturiko fikzio sinesgarria. Jarioa sumatzen zaio bere laburrean. Erraz irakurtzen da.

OLERKIA

Aurten ez da olerki lanik aurkeztu eta, beraz, ez da saririk eman.